

2017-2018 IKASTURTEKO MATRIKULA TASEN ERREDUKZIOEN ARAUTEGIA

BALDINTZAK

Erredukzioa eskatu ahal izateko, bi aurrebaldintza hauek bete behar dira:

- 1.- Orion erroldatuta egotea 2017ko urtarrilaren 1a baino lehenago.
- 2.- Udalarekiko zorrik ez izatea.

ESKATZEKO ARRAZOIAK

Erredukzioa ondorengo arrazoren batengatik eskatu daiteke:

- 1.- Familiaren diru sarreraren arabera

* Helbide berdinean bizi diren pertsonak:	* Urteko diru sarrera gordina:
1 pertsona	14.602 €
2 pertsona	17.852 €
3 pertsona	21.102 €
4 pertsona	24.352 €
5 pertsona	27.603 €
6 pertsona	30.846 €
7 pertsona	34.094 €

Ondorengo dokumentuak ekarri behar dira:

- Nortasun-agiriaren fotokopia.
- Familia-liburuaren fotokopia.
- Errenta aitorpenaren fotokopia (lan egiten duten guztiena).
- Erroldaren ziurtagiria.
- Elkarbizitza ziurtagiria.

- 2.- Bestelakoak

Ondorengo dokumentuak ekarri behar dira:

- Errenta aitorpena egin behar ez dutenaren ziurtagiria.
- Nortasun-agiriaren fotokopia.
- Familia-liburuaren fotokopia.
- Erroldaren ziurtagiria.
- Elkarbizitza ziurtagiria.

ERREDUKZIOA

Kasu bakoitzean Udaleko Kultura batzordeak eskaera onartu ondoren, tasaren erredukzioa honakoa izango da:

- 1.- Familiaren diru sarreraren arabera: Matrikularen % 50.
- 2.- Bestelakoak: Matrikularen % 100.

OHARRA: Ordaindu beharreko tasa gutxitzen zaion ikasleak ondo gainditu beharko du ikasturtea. Horrela ez bada, eta hurrengo ikasturtean berriro eskatzen badu beka, ez zaio emango.